

Hemen bildu gara, Ikasle Abertzaleak antolakundeko militanteak eta ikasle mugimendua osatzen dugun hainbat eragiletako partaideak, Bilboko Erronda kaleko egoitzaren egoeraren berri emateko, eta arazoari aterabideak proposatzeko.

Dakizuen bezala, pasa den uztaila hasieran, Sortu alderdiak zerraila aldatu zion historikoki Ikasle Abertzaleak antolakundeak kudeatu duen eta ikasle mugimenduko eragile ezberdinekin batera erabili izan duen Erronda kaleko egoitzari. Izan ere, pasa den urteko urrian, Sortuko hainbat militanteak, modu irregularrean, egoitzaren jabea den Euskal Ikasleen Erakundea elkarteko zuzendaritza batzorde zaharreko kideekin bildu, eta elkarteko kudeatzaile bazkide gareron bizkarrera, euren burua zuzendaritza berriko buru izendatu zuten. Mugimendu irregular hau baliatuz, Euskal Ikasleen Erakundeko estatutu berriak egin zituzten eta bertan behera utzi zuten ordura arte erakunde horren partaide izan ahal izateko beharrezko baldintza: ikaslea izatea. Modu honetan, Euskal Ikasleen Erakundearen lehen egunetik kudeatzaile izan den Ikasle Abertzaleak egoitzatik kanporatzea eta egoitzaren kontrola eskuratzea nahi izan dute, Sortu alderdiaren aginduetara subordinatzen ez den herri mugimendua ekonomikoki itozteko helburuarekin. Gaur ez dugu gertakari konkretu horien kronologia egin nahi, ez baita hori prentsaurreko honen helburua. Beraz, gertakariak hobeto ezagutu nahi dutenek, Ikasle Abertzalearen webgunera edota sare sozialetara jo dezakete.

Dagoeneko hasi da ikasturte berria, eta horrekin batera, ohiko jardunari ekin dio ikasle mugimenduak. Aurtengo ikasturtea, ordea, berezia da; gure jardunaren oinarrizko sustengua den Bilboko Erronda kaleko egoitza ezin dugulako erabili. Ikasle Abertzaleon eta ikasle mugimenduko haibat eragileen lan politiko eta sindikala oztopatzen du egoera horrek; izan ere, bilerak egiteko, materiala gordetzeko, edota beste hainbat jarduera prestatzeko eta sustengatzeko arazo larriak sortzen dizkigu. Bere kontu publikoetan 6.000.000 euro dituen alderdi politiko batek prozedura irregularrak erabiliz kanporatu gaitu, azken hamarkadetan gurea izan den egoitzatik. Desberdintasun politikoak izanagatik, agente politikoen arteko harremanetan prozedura hauen erabilera onartezina dela argi utzi nahi dugu.

Pasa den ikasturtean, egoerari aterabide bat lortzeko helburuarekin, modu irregularrean beren burua Euskal Ikasleen Erakundeko zuzendaritza gisara izendatu duten Sortuko militanteak, 100 bazkidek egin genuen asanblada orokorrera gonbidatu genituen. Orduko hartan ez ziren agertu. Horregatik,

berriro ere dei egiten diegu, urriaren 3an 18:00etan, Bilbiko kultur etxean egingo den Euskal Ikasleen Erakundeko asanblada orokorrean parte hartzera. Egin dituzten mugimendu irregularrak baztertu eta egoera konpontzeko aukera da eskaintzen duguna.

Ikusten den bezala, egoeraren urgentziak eta larritasunak bultzatu gaitu prentsaurreko zabal hau egitera: Sortu alderdiari exijitzen diogu Bilboko egoitzarekin eragin duen arazo larria konpontzeko ardura bere gain har dezan. Gauzak honela, konponbidea hamarkadaz hamarkada egoitza kudeatu duen Ikasle Abertzaleakek eta egoitza erabili duten ikasle mugimenduko eragile guztiek egoitza erabili ahal izateko bermeak jartzean datza. Horregatik, Euskal Ikasleen Erakundearen zuzendaritza eta kudeaketa IAren eskuetara itzultzea da Sorturi exijitzen dioguna, Ikasle Abertzaleakek ikasle mugimenduarekin batera azpiegitura hau erabiltzea bermatuz.

Besterik gabe, amaitutzat ematen dugu agerraldia, mila esker eta laster arte.